



# Arginzonizbeaskoa etxebizitza

Aldacrak:  
Ahozkoa: Arginzónis Beaskóa

*“... la casería rústica titulada Arguinzoniz veazcoa, situada en la barriada de San Pedro de la Anteglesia de Berriz,... que comprende con inclusión de su casa accesoría, su antusano y terrenos que la circundan, trescientos seis estados cuadrados superficiales de cabida y la que se compone de dos viviendas...”*  
DJE 1/129 or. (1865)



43° 10' 36"

2° 35' 47"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Bizkaiko su-erroldean aurkitzen ditugu baserri honen gaineko lehen arrasto dokumentalak 1704. urtean: *Arguinzonis de Yuso*. XVIII. mendean zehar “Yuso” edo “Iuso” hitzak erabiltzen dira beheko baserria dela adierazteko. Gerora, XIX. mendean, ordea, “Veazcoa” eta “Beascoa” hitzak erabili dituzte: *Arguinzoniz Veazcoa* (1825, PE/1825) eta *Arguinzoniz beascoa* (1888, BUA, 38). Horrela mantenduko da XX. mendean zehar, eta egun ere izen horrekin ezagutzen da. *Arginzonisbeaskoa* da jatorrizko baserria, eta horrek aurrealdean eranskina zeukan, egun baserria dena (**Ikus Arginzonisbeaskoaldekoa**).

XVII. mendean zabaltzen hasi zen estiloan egindako etxea da, 1995ean berriztatu zutena.

Bi isurkiko teilatua dauka, eta ohituraren kontra, teiltuaren gailurra ez du erdian, ezkerrean baizik, alde hori eranskin batekin handitu baitzuten. Hala ere, hiru gorputzak nabarmenak dira, aldamenekoak irtenagoak, eta erdialdekoa, atartea daukana, egurrezko dintelaren gainean eraikita. Leihoen antolamendua egoera berrira egokitu diote guztiz, gailurraren araberakoa baita. Leiho guztiak, zaharrak zein berriak, harlanduz inguratuta daude, etxearen kantalak bezala. Ganbarako leiho baten hegian inskripzio batek zera dio: “*ARGUINZONIZBEASKOIA / URIBEZUBIA TAR JESUS / 1995-AN-BERRIZTATUA*”.

toponimia

Bizkaiko etxe izenak inongo luzeenak dira Euskal Herrian eta beraietan oinarritutako deiturak luzeenak ere badira. Arrazoa ulertzeko erraza da. Sarritan, Erdi Aroan etxe bat egon zen inguruan gehiago eraiki ziren eta guztiek gorde zuten jatorrizko izena etxe beraren izanarekin batera. Lehenengo eta behin auzoaren izena dugu eta gero etxearena: Zengoitatagoitia, Trañajauregia, Gazteluiturri. Kasu honetan Aginzoniz auzoko beheko etxea da. Beasko hitzak beko adiera du eta gaur egun erabiltzen ez bada ere antzina oso erabilia izan zen. Hitz honen osagaiak beko eta indarra ematen zuen -as dira. 1704ko baserri zerrendetan itzulita ageri da “de yuso” eta geroago veazcoa zein beazcoa moduan ordurako inguruan ez baitzen s eta z bereizten.